

du, eta eginbeharra: Kristoren mezuaren diren balio moralak aldarrikatu behar ditu.

Halere, badirudi, kasu hontan ezin lortu izango duela bere xedea. Dokumendua legekeriari atxeki zaiolako, eta argitu nahi dituen egoerez kanpoko hizkera darabilelako:

a) Izan ere, «mugigaitz» direlako lege horiek, deklarazioak aditzera ematen duen baino mugikorrago dira: kultura, zibilizazio, gizarte jakin batzuei dagozkienak dira eta askotan; ideologia jakin baten isladura edo erreflexu dira.

b) «Gure natura» ere ezin definitzen ahal da jadanik Izkiritatik bakarrik. Izkiritura bera ere, giza kuskera jakin baten tresna da neurri batetan.

Ezin moldatzen ahal da, horrez gero, egun, sexu etika bat, Moiseren garaian bezala.

Eta horrela, Erromako deklarazioak garaiz kanpoko postura hartu du. Eta, jakina, asko galten du horrela.

Esaterako, hona ezkon aurreko erlazioen kasua.

Erlazio horietara jotzen duen gazte askok, honela hartzen ditu erlazio horiek: edota beren arteko leialtasuna frogatzeko, edota ezkon erakundeari uko egiteko, zapuzteko. Elizak ez du, jakina, zertan onetsi postura hori. Baina, zein da Erromako deklarazioak dakarren arrazoia? Honela dio: ezkontzatik kanpoko erlazioek ezin babes dezakete gizakia «irudipen eta kapritxo» aurka. Eta galdera hau da: zer da ezkontza hortaz? Sexu kapritxoaren kontrako defentsa?

Legekeria bera, eta handiagoa, ageri da homosexualitate eta masturbaketari buruz.

Azkenik, sexu makurkeria horiek bekatu hilgarri gerta daitezkeela esaten du dokumenduak. Aspaldian ez zerabilen eliz hierarkiak horrelako hizkerarik bere dokumenduetan. Atzerakada egin du oraingoan. Fedearen pozaren orde, legearen beldurra atera du. Hitz bat ere ez ebanjelio maitasunez. Eta jakina da, legeen legea maitasuna dela.

AMUNSA

## KRISTAU BIDEA, liburu haundi bat


(eta III)

Azken urteotan euskal Elizak daraman eskalabroaren ikus-jakile eta lekuko gara denok. Nolabait, eta Jainkoaren milagroa da, Elizatxo honek praksian asmatu du zutik irauten, haize bufadaren kontra. Material humanoaren kalitateari eskerrak, batez ere. Olatuak azpian pasa gaitu. Instintoz bezala asmatu den postura kementsu askok, ordea, luzaro irauterik ez du, lehenbai lehen gogoeta teologikoak segitzen ez badio. Teologoren batzuk ohartu dira, gainbehera beltz honen ondoren, ekinaldi berri batek nahitaez lan pastoral guziaren inguruko jorra teorikoa behar duela. Eta planteamolde serio bategi, lan barruti guziei begiratu behar die-la, denak batera hartuz. Ez dago lan teologiko serio egiterik, Liturgia eta bazterreraren utziaz, Biblia bat ere eduki gabe. Hizkuntza batasuna ez da, hemen, lan teoriko eta praktikoko orokar baten aurretiakoa besterik. Nahitaezko aurretiakoa, halare, ezer egingo bada.

Ez dago teologoren batzuen esku, ordea, lehen-lehenik lehenengo lanak egitea eta gero geroakoak. Lehenengo lanak, teologiarik izan dadin oinarrikoenak—Liturgia eta Biblia euskara batuan—dirudienez euskal teologiarik sor dadin kezka haundirik ez dutenen esku daude. Eta horrela, besterik ezinean, KRISTAU BIDEA-rekin hartu beharko dugu oraingo etsia. Oraingo eta, dirudienez, urte mordoska batetarako, honek izan beharko du euskal teologiaren oinarriko testua, lan teoriko sakon eta orokor batetarako asmoak eta euskal Eliza osoarentzat—Eliza honetako zeregin sail guzientzat, alegia—planteamolde bat eta konzeptu bat bilatzen dituzten teologo eta fededunentzat.

Halakoxe oinarriko lanari zor zitaion bezala, egin dute lan KRISTAU BIDEA-ren prestatzailerik. Lan hori aurrera atera dutenak, ia perfekzionismora ailegatzen den plan zail eta zorrotz

bati azpiratu bait zaizkio. Eta Jesukristok daki zenbat ernegu eta pazientzia kosta den, plan hura azkeneraino eramatea. Oso zaila da euskaldunon artean ekipo lanik, eginkizun desberdinetan eta elkarrengandik aparte bizi direnen ekipo lanik batez ere. Hemen, ordea, ez da lan bikain bat lortu soil. Ezpada lan metodo bat probatu da eta haren zuzentasuna praksian egiaztatuta da. Lehenengo ekipo batek dena itzuli. Gero, oinarriko material pila hori Dionisio Amundarainek, Paulo Agirrebaltzategik



eta Joxe Antonio Adurizek, batasuna emanez, landu eta orraztu. Ondorenean, euskalki bakoitzeko ohargileen eskutan utzi, bakoitzak hitzez-hitz begira zezan. Oharrok jaso eta, ahal zela, testua arabera berritu; bestela, oinoharretara edo hiztegiara eta aditz aurkibidera.

Beraz, lan hau, bikaina eta ederra, bukaerarik ez, baina hasiera da. Aspaldion behar genuen oinarria. JAKINEk bete duen hutsunea, hortakoz, ez da Kristau lkasbide moderno baten faltarena bakarrik izan. Euskal teologia modernoaren hutsune erabatekoa, bete ez badu egin ere, agiri-agirian jarri du. Hutsune hori betetzen saiatu nahi lukeenek, lehenengo oinarria jarri dute ondorengo lanerako. Ez da beren errua, oinarri hori lehen-lehenengo oinarri izan behar zuenik ez bada.

Joxe Azurmendi